



# BISCAY ESG/18 GLOBAL SUMMIT

**Bilbo, ekainak 11 eta 12**



## Hobetu dezake diruak mundua?

*Zer esan nahi du mundua hobetzeak? Datu bat: 1,7 planeta erabiltzen ditugu gure ondasunak ekoizteko eta gure hondakinak kudeatzeko.*

Eta dirua, inbertitzaileek horren kontzientzia hartu dute. Horrela sortzen dira **ESG inbertsioak, hau da, errentagarritasuna emateaz gain arazoak konpontzen laguntzen duen dirua.**

Zer da ESG inbertsioa?

- **Environmental** (euskaraz, ingurumenekoa): nola zaintzen dute enpresek ingurumena euren jarduna garatzean.
- **Soziala**: nola kudeatzen dute enpresek euren interes-taldeekin dituzten harremanak, eta nola bermatzen dute euren ekoizpen-prozesuen kalitatea eta segurtasuna.
- **Gobernantza korporatiboa**: zer-nolako barne-kontrolak dauden enpresetan, zer ordainsari-eskala dituzte, nola zaintzen dituzte akziodunek eskubideak, eta abar.

Inbertitzaileen komunitateak erabiltzen dituen irizpideak dira, horien bidez ebaluatzeko noraino betetzen duten enpresek, euren jardunean, jasangarritasunarekin hartuta duten konpromisoa.

### **Nola uztartzen dira irizpide jasangarri hauek inbertsio tradizionalarekin?**

Likidezia, errentagarritasuna eta arriskua ez dira, lehen bezala, inbertsio bat egiterakoan kontuan hartu behar diren faktore bakarrak. Izan ere, orain badira finantzen munduan agertzen diren beste faktore batzuk, **Sozialki Arduratsua den Inbertsioaren** osagai direnak.

Orain arte, finantzen mundua bi muturren artean mugitu izan da: finantza-inbertsio tradizionala, helburutzat duena errentagarritasuna maximizatzea hartutako

arriskurako; eta, bestetik, filantropia edo euren finantziazioa gehienbat funts galdurako dohaintzetan oinarritzen duten proiektuak.


Hala eta guztiz ere, inbertsio paradigma berri bat erabat aldatzen ari da panorama hori. Gaur egun, **inbertsioaren munduak aldi berean arduratsuak eta errentagarriak diren inbertsioak eskatzen ditu.**

### Inbertsio hauen hazkundearen erritmoa

Gero eta inbertitzaile gehiagok hartzen dute kontzientzia gizarte-aldaketa bat sortzeari begira jokatu dezaketen rol garrantzitsuaz. Euren bultzatu ditzakete enpresak euren ingurumen- eta gizarte-inpaktuaz gehiago kontzientziazera eta horren arabera jardutera.

Mundu jasangarriago baten alde bultzatzen ari diren ekimen guztien artean, Nazio Batuen Erakundeak Inbertsio Arduratsuaren Printzipioak (IAP) garatzeko eskatu zien inbertitzaile instituzional garrantzitsuenei, 2005ean. Bada, horiek izan dira sozialki arduratsua den inbertsioaren irizpideak mundu osoan hartzearen alde egin duen katalizatzaile nagusia. Sortu zirenez geroztik, IAPek 1.800 sinatzaile inguru bildu dituzte, eta 70 bilioi dolarretik gorako aktiboen bolumena dute; gainera, bolumen hori etengabe hazten ari da.


#### IAPen sinatzaileen kopuruaren bilakaera:



#### Inbertsio Arduratsuaren Printzipioak:

- 1.- ESG gaiak txertatzea gure inbertsioak aztertzeke eta horien inguruan erabakitzeko prozesuetan.
- 2.- Aurrendariak izatea ESG gaiak gure jabetzako jardunbide eta politiketan txertatzen.
- 3.- ESG gaien dibulgazio gardena bilatzea gure inbertsioa hartzen duten erakundeen aldetik.
- 4.- Printzipioen onarpena eta aplikazioa sustatzea inbertsioen sektorean.
- 5.- Batera lan egitea Printzipioen aplikazioan dugun eraginkortasuna hobetzeko.
- 6.- Gure jardunaz eta aurrerapenez informatzea Printzipioen aplikazioari dagokionez.

Gaur egun, **Europak** gidatzen du inbertsio jasagarrien mundua, osoko kopuruaren erdia baino gehiago baitu: **% 52,6**. Eta hazkunde horri eustea espero du. Haren atzean **Estatu Batuak** daude, **ia % 40ekin**, eta gehien hazten ari den merkaturia dira. Iparramerikar herrialde erraldoi horretan, inbertsio jasagarria dolar bat da 5 dolar bakoitzeko, aktiboen kudeaketa profesionalean.



Region	2014	2016
Europe	58.8%	52.6%
United States	17.9%	21.6%
Canada	31.3%	37.8%
Australia/New Zealand	16.6%	50.6%
Asia	0.8%	0.8%
Japan		3.4%
Global	30.2%	26.3%

Note: Asia figure includes Japan in 2014, but excludes Japan in 2016. Eurosif used a narrower definition of SRI in 2016 than in 2014. See Appendix I: Methodology and Data, for details.

Espanian, Novasterrek aurkeztutako SAIaren Behaketaren arabera ([http://www.spainsif.es/wp-content/uploads/dlm\\_uploads/2017/12/Observatorio-de-la-ISR-en-Espan%CC%83a-2016.compressed.pdf](http://www.spainsif.es/wp-content/uploads/dlm_uploads/2017/12/Observatorio-de-la-ISR-en-Espan%CC%83a-2016.compressed.pdf)), ingurumenarekin, alderdi sozialarekin eta gobernu onarekin lotutako irizpidez kudeatzen diren funtsen ondarea **185.000 milioi euro** izan ziren **2016an**, hau da, 2015ean baino % 9,5 gehiago. Irizpideren bat kanpo uzten duten funtsak ere kontuan hartuz gero, zenbatekoa 232.000 milioi euro izango litzateke.

### Inbertsio jasagarriaren adibideak

Une paregabean gaude irizpide jasagarritz egindako inbertsioa finkatu ahal izateko, mundua hobetzeari begira. Ondo bideratutako diruak aldaketa esanguratsuak sor ditzake, eta enpresek inpaktu positiboa izan dezakete munduan errentagarritasunik galdu gabe. Jarraian aipatzen diren enpresek egiaztatu ahal izan dute hori horrela dela:



- **Adidas:** ozeanoetan jasotako zaborra erabiltzen du kirol-oinetakoak fabrikatzeko, zeren zabor hori birziklatzen baitu geroago erabiltzeko.
- **Iberdrola:** konpainia honek energia “berdea” hornitzen dio Mexikoko AB INbEV garagardo-enpresa erraldoiari.
- **Sidenor:** Sidenor-ek ESG-a inbestimendu arduratsuko irizpideekiko erlazionatutako proiektuetarako 6.5 milioi euro baino gehiago zuzendu ditu azken bi urteetan. Inbestimendu hauek hiru areatan banatzen dira: ingurumen-proiektuak, pertsonen segurtasunarekiko erlazionatutako inbestimenduak eta produktuaren kalitatearen hobekuntzak. Sidenor-ek 2018an inbestimendu arduratsuekiko konpromiso hau mantentzea aurrez ikusten du, lehen aipatutako hiru ardatz hauetan 3,6 milioi euro baino gehiagoko zenbatekoak diren proiektuak bultzatuz.
- **Pandora:** ekimen ekologikoa sostengatzen du bere bitxigintzan, zeren frogatu baitu, ingurumen-azterlan bat egin ostean, naturan sortzen den inpaktua % 5etik behera jaitsi daitekeela urre eta zilar birziklatua erabiltzen direnean, meategietako alternatiba erabili beharrean.
- **Vodafone:** teknologia mugikorra erabiltzen du Tanzanian amak osasun-zerbitzuekin kontaktuan jartzeko, hilkortasun tasa eta lesioak murrizteko, eta, hortaz, jaioberrien heriotza kopurua ere murrizteko.
- **Danone:**
  - **Ana Bella Eskola:** genero-indarkeriatik bizirik atera diren emakumeak ahalduzko proiektuak Ecosysteme Funtsaren saria ekarri dio, hots, Emakumeak Ahalduzko Munduko Proiektu Onenaren saria.



- **Grameen Danone Foods:** enpresa sozialak bitamina, proteina, burdina, kaltzio, zink eta beste mineral batzuen dosi espezifikoak dituen jogurt bat ekoizten du, behar dituzten nutrienteak emateko Bangladesheko landa-eremuetako hurrei.

## Bizkaia eta ESG

Zergatik Bizkaia? Zergatik ESG?

Bizkaia finantza-ibilbide zabaleko lurraldea izan da aspalditik: banku garrantzitsuen egoitza izan da, Bilboko burtsa aurrendaria izan da estatuko kapitalen merkatuetan, eta industria-sarearen garapenari oso lotuta egon diren finantza-profesional ospetsuak izan ditu. Bizkaiko DNAREN ezaugarri bat da bere gizarte- eta ingurumen-balioengatik eta jardunbide onaren balioagatik nabarmentzen den finantza- eta enpresa-kultura bat duela txertatuta.

Bizkaia ESG inbertsioekin batzea bi kultura horien batasun naturala da: finantzen kultura eta balioen kultura.

## II Biscay ESG Global Summit

Testuinguru horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak, Fineco-Kutxabank Banka Pribatuak eta Deustuko Unibertsitateak bat egin dute Bizkaia Europako eta nazioarteko erreferente bihurtzeko sozialki arduratsua den inbertsioaren alorrean, lurraldea “finantza-hub” berriz bihurtzeko xedez Bizkaiko Foru Aldundia egiten ari den ahaleginen baitan.

Horretarako, Biscay ESG Global Summit izeneko goi bilera antolatuko dute berriro Bilbon; izan ere, horren bigarren edizioa ekainaren 11 eta 12an izango da, eta oraingoan ere ESG ekosistemaren nazioarteko aditu garrantzitsuak ekarriko ditu.

Goi-bilera honekin batera, ESGari buruz Europan egiten diren mintegi trinkoenenetako eta osatuenetako bat eskainiko da Deustuko Unibertsitatean. “ESG Investment and Finance Summer Programme” ekimenaren lehenengo edizioaren arrakastaren ostean,



bigarren edizioa egingo da, ekainaren 11tik 15era, inbertsio arduratsua jorratzeko. 30 orduko prestakuntza eskainiko da, ESG ekosistema osatzen duten eragile guztiei soilik zuzenduta.

<http://www.biscayesgsummit.eus/>

VK Comunicación

20. Urteurrena

**Informazio gehiagorako: Patricia Loredo Sierra**

**Tel.: 944 01 53 06. Mugikorra: 629749047.**

**E-mail: [patricia@vkcomunicacion.com](mailto:patricia@vkcomunicacion.com)**